

AZKAINEKO HERRIAK

EUSKARA TEKNIKARI BAT (G/E), komunikazioa, kultura gaiak eta elkarteekiko harremanen arduradun bat

BILATZEN DU

Jardunaldi osoko lanpostua

Lurraldeko laguntzaile administratiboaren enplegu esparrua (edo erredaktoreena)

Eginbehar nagusiak:

- **Euskara teknikari-garatzaileria:** euskararen aldeko herriko hizkuntza politika zehazteko xedea duten proposamenak apailatzea, eta politika horren jarraipena eta gauzatzea segurtatzea
- **Herriko gelak kudeatzea:** erabilera erregularren edo noiztenkako erabileren egutegia, materiala eskatzeko edo maileguan hartzeko eskaerak, etab.
- **Herriko elkarteak eta merkatarien artean lotura egitea**
- **Herriko Kultura zerbitzua:** *Ascaín Animations* elkartearen administratiboki laguntzea eta ekitaldien antolaketa ona segurtatzea
- **Komunikazioa:** Herriko ekintzen berri ematea, webgunea, mezu aldakorreko taula eta sare sozialen bitartez
- **Herriko etxeko harrera kudeatzea:** buruz buruko eta telefono bidezko harrera, egoera zibilaren eta hilerrien zerbitzua kudeatzea (harrera kiderik ez bada)
- **Emazte/Gizonen arteko berdintasunerako batzordearen erreferente izatea:** biltzarrak, komunikazio kanpainak antolatzea

Gaitasunak:

- EGA ziurtagiria edo baliokidea - dokumentuak itzultzeko gai izatea
- Bulegotika programak eta sare sozialak menperatzea
- Idazketa administratiboa menperatzea
- Segurtasun jestuak eta jarrerak ezagutzea (ahalaz)
- Publikoa Errezibitzen duten Etxeetara aplikatzen zaien legegia menperatzea (ahalaz)
- Entzuteko, behatzeko gaitasunak, harreman gaitasunak
- Beregain aritzen jakitea lana antolatzean eta egitean
- Buruzagiei kontu ematen jakitea, ahoz ala idatziz
- Zorrotza, diskretua eta erne izatea.

Lan baldintzak:

- Ordutegi finkoa, bitarte aldakorarekin, lanari lotutako eginbeharren edo jardueraren anitzeko garaien arabera
- Lanbide arauak, diskrezioa eta isilik egoteko obligazioa, etika eta deontologia, zerbitzu publikorako jitea
- Ahalmen berezien barne diren eginbeharretan beregain aritzea
- Erne izatea, lanean aritzeko prest agertzea, zorrotasuna eta zehaztasuna erakustea
- Herriko zerbitzu publikoaren kalitatearen irudia begiratzea (jarrera ona, jokabide egokia, etab.)
- Langileekin eta zerbitzu arduradunekin harremanetan izatea
- Estatutu-lansaria + ordainsari-araubidea.

Hautagaitzak aurkezteko epemuga: 2025eko martxoaren 31a

Hautagaitzak Jaun Auzapezari zuzendu behar zaizkio: Santinazioko errepidea, 24 - 64310 AZKAINE edo h.beobide@mairie-ascain.fr.

Hautagaiei mezu elektronikoz erantzunen zaie (dei gutunak, erantzun gutunak).

Ez ahantz zuen sarrerako ontzia eta mezu baztergarriak maiz kontsultatzea.

LANEAN HASTEKO EGUNA: 2025eko maiatzaren 5a